

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4984

EBAZPENA, 2024ko urriaren 18koa, HABEren zuzendari nagusiarena, euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko aurkeztutako eskariak onartu eta eskatzaile bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzen duena, euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko dirulaguntzak arautzen dituen 2024ko maiatzaren 29ko Ebazpenak ezarritakoaren arabera.

Ikusirik, deialdira aurkeztu eta eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileak euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen titularrak direla eta onuradunek bete beharreko baldintzak betetzen dituztela.

Ikusirik, euskaltegiek dirulaguntza gai izateko eskatutako ekipamendu teknologikoa deialdi honetarako xede diren gelak digitalizatzeko baliabideak direla.

Ikusirik, eskaeretako bati gehitutako aurrekontu gehigarri bat epez kanpo aurkeztu dela.

kontuan hartuta, deialdiaren eranskinean adierazitako gehienekoa ezin dela gainditu eta diruz lagundu nahi den ekipamenduaren erosketakostearen erdia laguntzen dela diruz.

EBAZTEN DUT:

1.– Eranskinean zerrendatzen diren euskaltegi pribatu homologatu eta euskararen autoikaskuntza zentroeiei, gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko 101.117,84 euroko dirulaguntza onartzea, euskaltegi bakoitzari esleitutako kopurua eranskinean jasotzen delarik.

Esleitutako dirulaguntza hau izango da euskaltegi bakoitzaren gehieneko kopurua.

2.– Emandako dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko zaio erakunde onuradunari, gas-tua behar bezala zuritu ondoren, eta ebazpenaren 10. oinarriak aurreikusitako irizpideen arabera, hala behar balitz, kitapen-ebazpen baten bitartez doituko da.

3.– Ebazpen honen 4. oinarrian zehaztutako epetik kanpo eskatzaileetako batek aurkeztutako dokumentazio gehigarria ukatzea.

Ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez denez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute Ebazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Donostia, 2024ko urriaren 18a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

2024ko urriaren 31, osteguna

ERANSKINA

Euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek gelak digitalizatzeko baliabideak eskuratu ahal izateko esleitutako kopuruak:

1.– Onartutako eskaerak:

Erakunde Titularra	IFK	Diruz lagundutako materiala	Laguntza (eurotan)
Udaberria Kultura Elkartea	G01026301	4 monitore interaktibo	5.123,58
Juan Mateo Zabala Euskaltegia S.L.	B48145965	3 monitore eta 2 ordenagailu	5.119,51
Ardatz Kultur Elkartea	G01052042	11 monitore interaktibo	10.182,15
Jose Antonio Agirre Kultur Elkartea	G48484661	Arbela, proiektorea eta ordenagailua	813,73
Ulibarri Euskaltegia SCoop	F48199673	5 monitore interaktibo eta 15 ordenagailu portatil	11.858,00
Labayru Fundazioa	R4800525J	Pantaila TV Phillips 1	357,50
Bilbo Zaharra Euskaltegia Koop.E.	F48117774	6 monitore interaktibo, 4 tablet eta ordenagailu 1	7.749,74
Txinta Kooperatiba Elkartea	F95242822	13 monitore interaktibo	16.175,33
Legazpi 6 Euskaltegia S.L.	B20592044	3 monitore interaktibo	3.102,47
Fundación Cultural Privada Aurtén Bai	G48254767	3 switch, 5 grabagailu, 6 ordenagailu, 3 bozgorailu, 4 entzungailu, 2 arbel digital, 4 sagu eta pantaila 1	6.429,98
Euskaraz Koop.E.	F95222816	12 pantaila interaktibo, 21 proiektore eta 30 ordenagailu	28.992,15
Gernika XXI S.L.	B20820585	2 proiektore, 2 bozgorailu, 4 ordenagailu, 2 monitore interaktibo	5.213,70
			101.117,84

*Zerrendatutako materiala erakunde titularrek aurrekontuetan aurkeztutakoa da. Ekipamenduen gastuak eta hauen instalazioarena hartu dira aintzat.

2.– Baztertutako eskaerak

Erakunde titularra	IFK	Diruz lagundutako materiala	Arrazoa
Jose Antonio Agirre Kultur Elkartea	G48484661	Proiektorea eta pantaila (aurrekontua 1.275,45 euro)	Epez kanpo aurkeztua